

BALOREEN ALDAKETA EUSKAL HERRIAN

Gizarteen izanbide edo nortasunari eragiten dieten eragileen artean, arlo materialarekin zerikusia dutenak (orografia, klima, demografia, teknologia...) eta izpirituarekin (erlijioa, gizarte balore edota goiburuak...) loturik daudenak bereizi daitezke.

Faktore mota bakoitzaren eragina eta garrantzia bereiztea ez da erraza izaten. Hala eta guztiz ere, ez dago zalantzarik biak direla erabakigarriak gizarte baten izaera eta bilakaera ulertzerakoan. Eragile materialak gizarte baten gorputza badira, izpirituzko eragileak bere arima dira.

Aldizkari honetan bertan aurkeztu nuen idazki batean arlo materialarekin loturik dagoen demografia bezalako faktore baten eragina aztertu ondoren (Juaristi, 2000), interesgarria iruditu zait izpirituzko eragileak aztertzea. Zehatzago esateko, euskaldunen balorea hierarkia eta gure gizartean sortzen ari diren zenbait beharrian berriren eragina aztertuko ditut ondorengo lerroetan.

1. Euskaldunen balore hierarkia eta barnerako joera

Euskal Herria mendebaldean kokaturik dago eta, zentzu honetan, ez da, oinarrizko goiburuei dagokionez behintzat, bere inguruneko herriengandik asko desberdintzen. Denbora luzez Mendebaldean nagusi izan diren gizarte filosofietatik elikatu diren heinean, euskal herritarren eta, oro har, Mendebaldeko gizarteetan bizi direnen baloreak berdintzen joan dira.